Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

**DECRETO NUM. 2278/17**

Considerando la normativa en materia de Subvenciones,

Considerando la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa,

Considerando el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa y la existencia de crédito adecuado y suficiente al respecto,

Considerando la propuesta del departamento de Promoción Económica - Behargintza, que sirve de motivación a la presente resolución,

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, DISPONGO:

Primero.- Aprobar la convocatoria y las bases específicas reguladoras de la subvención para la modernización y renovación de establecimientos comerciales y hosteleros con el contenido que se transcribe en el anexo.

Segundo.- Remitir la resolución para su publicación en http://leioazabalik.leioa.net/

Así lo mandó y firmó la Sra. Alcaldesa, Dña. Mª Carmen Urbieta González, en Leioa, a quince de septiembre de dos mil diecisiete, de todo lo cual, yo, la Secretaria, doy fe.

| LA ALCALDESA, | LA SECRETARIA, |
|---|---|
| Fdo.: Mª Carmen Urbieta González. | Fdo.: Chiara Camarón Pacheco |

**MERKATARITZA ETA OSTALARITZA LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**
**-LEIOA BERRIZTEN-**

**1. XEDEA**

Oinarri hauen xedea **2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte** egindako inbertsioak itzuli behar ez diren laguntzekin diruz laguntzeko emakida arautzea da, inbertsioak Leioako udal mugartean kokatutako saltokiak modernizatu eta berritzeko egin badira eta bigarren epigrafean jasotako betekizunak betetzen badituzte.

**BASES REGULADORAS DEL PROGRAMA MUNICIPAL DE SUBVENCIONES DE APOYO AL COMERCIO Y HOSTELERIA.**
**-LEIOA BERRIZTEN-**

**1. OBJETO**

Es objeto de las presentes bases regular la concesión de ayudas a fondo perdido para subvencionar las inversiones realizadas entre el **1 de Enero y el 31 de diciembre de 2017** para la modernización y renovación de los establecimientos ubicados en el término municipal de Leioa que cumplan los requisitos establecidos en el epígrafe 2.

## 2. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEKIZUNAK

Bost langiletik beherako lantaldea daukaten enpresak, saltokiak eta profesionalak laguntza hauen onuradun izan ahalko dira, edozein forma juridiko dutela ere, betekizun hauek betetzen badituzte:

- Jarduera ekonomiko berbera izatea deialdi hau argitaratzen den data baino gutxienez urtebete lehenagotik.
- Erakunde onuradunen saltokiak Leioako udal mugartean kokatuta egotea.
- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafea bat etortzea I. eranskinean jasotako epigraferen batekin edo txikizkako merkataritza salmentaren bolumena fakturazio osoaren %35 baino gutxiago izatea.

Pertsona juridiko edo fisikoen kasuan, zenbait saltokitan garatutako jarduera baten edo batzuen titularra izanez gero, laguntzak jaso nahi dituen saltoki bakoitzeko eskabide bana aurkeztu ahalko dute.

Enpresa eskatzaileek egunean izan beharko dituzte Leioako Udalarekiko zein Administrazio Publikoarekiko zerga betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere, diru-laguntza eskabidea aurkezteko datan.

Honako hauek diru-laguntza honen onuradun gisa berariaz baztertuko dira:

a) finantza entitateak
b) jarduna Leioako Udalaren lokaletan garatzen duten enpresa, saltoki eta profesionalak
c) zuzenbide publikoko entitateak eta sozietate publikoak, baita irabazteko asmorik gabeko entitateak eta elkarte jarduerak egiten dituztenak ere

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, nortasunik ez duten pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte publikoak edo pribatuak direnean, eskabidean nahiz emateko ebazpenean beren-beregi adierazi beharko dira elkarteko kide bakoitzak betetzeko hartu dituen konpromisoak, baita haietariko bakoitzarengatik aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa ere, haiek ere onuradun izango dira-eta. Edonola ere, elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko adina eskumen izango dituena. Elkartea ez da desegingo harik eta legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

## 2. REQUISITOS DE LAS ENTIDADES BENEFICIARIAS.

Podrán acogerse a estas ayudas las empresas, comercios y profesionales con plantilla inferior a 5 personas trabajadoras, con independencia de su forma jurídica, que cumplan las siguientes condiciones:

- Que ejerzan la misma actividad económica con una antelación mínima de un año a la fecha de la publicación de la presente convocatoria.
- Que los establecimientos de las entidades beneficiarias estén ubicados en el término municipal de Leioa.
- Que el epígrafe del Impuesto de Actividades Económicas (IAE) se corresponda con alguno de los contemplados en el anexo I o su volumen de venta comercial minorista suponga al menos un 35% de la facturación total.

En el caso de personas físicas o jurídicas que sean titulares de una o de varias actividades que se desarrollen en varios establecimientos, podrán presentar una solicitud por cada establecimiento para el que deseen obtener ayudas.
Las empresas solicitantes deberán encontrarse al corriente de sus obligaciones frente al Ayuntamiento de Leioa y a las diferentes Administraciones Públicas con las que tengan exigencias de carácter tributario, así como de sus obligaciones con la Seguridad Social, a fecha de presentación de la solicitud de subvención.

Quedan expresamente excluidas como beneficiarias de esta subvención:

a) las entidades financieras,
b) las empresas, comercios y profesionales que desarrollen su actividad en locales propiedad del Ayuntamiento de Leioa
c) las sociedades públicas y entidades de derecho público, así como las entidades sin ánimo de lucro y las que realicen actividades asociativas.

De conformidad con lo dispuesto por el artículo 11 de la Ley General de Subvenciones, cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin personalidad, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarios. En cualquier caso, deberá nombrarse un representante o apoderado único de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como beneficiario, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de esta ley.

**3. LAGUN DAITEZKEEN EKINTZAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.**

**3.1.** Lokalean **2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra** arte egindako inbertsioen proiektuak diruz lagundu ahalko dira, hain zuzen ere gutxienez 200 euroko zenbatekoan.

Horretarako, kasuan kasuko jarduketaren fakturetan ageri den data hartuko da inbertsioa egin izanaren data gisa.

Honako inbertsio hauei dagozkien gastuak diruz lagun daitezkeela ulertuko da:

1. Enpresa jarduna garatzeari zuzenean lotutako ekipamendu eta programa informatikoak.
2. Salmenta puntuen terminalak, kodeen irakurgailuak eta etiketa sistemak.
3. Altzariak eta merkataritza ekipamenduak
4. Jarduera nagusiari zuzenean lotutako makineria
5. Irudi korporatiboa aldaraztea eragiten duten errotulazioa edo bestelako elementu fisikoak

Diru-laguntza kalkulatzeko inbertsioen eskuratze balio «garbia» hartuko da kontuan; Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) kendu ondoren fakturatutako zenbatekoa eskuratze balio garbi gisa ulertuko da.

Enpresa eskatzaile bakoitzeko gehienez ordenagailu bat (eramangarria edo mahai gainekoa) lagundu ahalko da diruz.

BEZa kenduta 30 euroko edo gehiagoko aktiboen fakturak baino ez dira onartuko diruz laguntzeko.

Nolanahi ere, lagunduko diren aktiboek lotura zuzena izan beharko dute jarduerarekin, eta enpresa modernizatu eta eguneratzeko helburua izan beharko dute, baita merkaturatze teknikak hobetu eta kostuak murriztea ere.

Hirugarrenei laga ez zaizkien elementu berrietako inbertsioak izango dira, kontraprestazioarekin edo gabe, eta enpresa eskatzaileak berak ez baditu ekoitzi edo merkaturatu.

Garraio kostuak, aseguruak, administrazio baimenen tasak, lizentziak edo parekoak ez dira diruz lagunduko, ezta zergak edo tributuak ordaintzea ere. Garraio elementuak edo merkataritza lokalak erostea ez da inolaz ere ez diruz lagunduko. Renting edo leasing bitartez ekipamendua erostea ere ez da diruz lagunduko.

**3.2.** Diruz lagun daitekeen inbertsioaren %50eko laguntza ezarri da, ez da itzuli beharko eta saltoki bakoitzeko gehienez 600 euroko muga egongo da.

**3. ACCIONES SUBVENCIONABLES Y CUANTÍA DE LA AYUDA.**

**3.1.** Serán subvencionables los proyectos de inversión que se realicen en el local durante el periodo comprendido entre el **1 de enero y el 31 de diciembre de 2017,** con un importe mínimo de 200€.

A estos efectos, se tomará como fecha de materialización de la inversión aquella que figure en las facturas correspondientes a la actuación realizada.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que correspondan a las siguientes inversiones:

1. Equipos y programas informáticos directamente relacionados con el desarrollo de la actividad empresarial.
2. Terminales de punto de venta, lectores de códigos y sistemas de etiquetaje.
3. Mobiliario y equipamiento comercial.
4. Maquinaria directamente relacionada con la actividad principal.
5. Rotulación u otros elementos físicos que impliquen un cambio de imagen corporativa.

Para el cálculo de la subvención se tendrá en cuenta el valor de adquisición «neto» de las inversiones, entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA).

Será subvencionable como máximo 1 ordenador (de sobremesa o portátil) por empresa solicitante.

Sólo se admitirán las facturas de activos subvencionables cuyo importe, excluido el IVA, sea igual o superior a 30 euros.

En todo caso, los activos objeto de apoyo, deberán estar directamente relacionados con la actividad e ir destinados a la renovación y modernización de la empresa, así como a la mejora de las técnicas de comercialización y reducción de costes.

Se tratará de inversiones en elementos nuevos que no se hallen cedidos a terceros, con o sin contraprestación y que no hayan sido fabricados o comercializados por la propia empresa solicitante.

No serán objeto de subvención los costes de transporte, los seguros, las tasas por autorizaciones administrativas, licencias o similares, ni el pago de ningún impuesto o tributo. En ningún caso se subvencionará la compra de locales comerciales o elementos de transporte. Tampoco la adquisición de equipamiento mediante leasing o renting.

**3.2.** Se establece una ayuda a fondo perdido del 50% de la inversión subvencionable, con un límite máximo de 600€ por establecimiento.

**4. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA**

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2017koa abenduaren 15ean bukatuko da. Eskatzaileak eskatutako diru-laguntzari dagokion inbertsioa oraindik ez bada egin, eskabidea egin beharreko jarduketaren aurrekontuarekin batera aurkeztu beharko da. Nolanahi ere, egindako inbertsioaren faktura egiaztagarrien data gehienez abenduaren 31koa izan behar da.

**5. ESKABIDEAK AURKEZTEA.**

Eskabideak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, Behargintza Leioan aurkeztu ahalko dira (Mendibil 3, 48940, Leioa) edo Udal Arreta Zerbitzuetan (udaletxean eta Gaztelubiden). Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean horretarako prestatutako erregistroetan ere aurkeztu ahalko dira.

Eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

**6. NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA**

Diru-laguntzen eskabideak Eskaera Eredu Normalizatuan eta deialdi honetako II. Eranskineko Zinpeko Adierazpena aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta sinatuta, dokumentu hauekin:

a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, NANaren fotokopia. Eskatzailea pertsona juridikoa bada: IFKren fotokopia (Identifikazio Fiskaleko Kodea), enpresa eratu izanaren eskrituren fotokopia, ondorengo aldaketa eta inskripzioekin, kasuan kasuko erregistroetan egindakoak, ordezkapen boterea duen NANaren fotokopia.
Berezko nortasun juridikorik ez daukaten sozietate zibilei dagokienez, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua ere aurkeztu beharko da.

b) Foru Ogasunak emandako Jarduera Ekonomikoen Zergan egindako alten eta bajen gaineko egiaztagiria. Enpresa eskatzaileren baten epigrafea ez bada jaso I. eranskinean, orduan ziurtagiri horrekin batera emaitzen urteko kontua eta balantzea ere aurkeztu beharko dira, eta agiri horietan agertuko da txikizkako salmenten sarreren bolumena.

c) Foru Ogasunak emandako ziurtagiri eguneratua, enpresa zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.

d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, enpresak betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.

**4. PLAZO DE SOLICITUD.**

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases y finalizará el 15 de diciembre de 2017. En aquellos supuestos en que la persona solicitante no haya realizado aún la inversión para la que solicita la subvención, la solicitud deberá presentarse con un presupuesto de la actuación a realizar. En todo caso, las facturas justificativas de la inversión realizada deberán tener como fecha máxima el 31 de diciembre.

**5. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.**

Las solicitudes, junto a la documentación preceptiva, podrán ser presentadas en Behargintza Leioa (Mendibil, nº3. 48940. Leioa), o en los Servicios de Atención Ciudadana municipales (SAC Ayuntamiento y Gaztelubide). Igualmente podrán presentarse en los registros habilitados a tal efecto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
La presentación de la solicitud implicará la aceptación del contenido de estas bases.

**6. DOCUMENTACIÓN PRECEPTIVA.**

Las solicitudes de subvención se presentarán en el Modelo Normalizado de Solicitud y Declaración Jurada recogido en el Anexo II de esta convocatoria, debidamente cumplimentado y firmado, junto con los siguientes documentos:
a) En el supuesto de que el/la solicitante sea una persona física, Fotocopia del DNI. En el caso de personas jurídicas: Fotocopia del CIF (Tarjeta de Identificación Fiscal), fotocopia de las escrituras de constitución de la empresa con sus posteriores modificaciones e inscripción en los registros que corresponda, fotocopia del DNI de la persona con poderes de representación.
En el caso de las Sociedades Civiles sin personalidad jurídica propia, se incluirá el contrato privado sellado por Hacienda Foral.
b) Certificado de altas y bajas en el Impuesto de Actividades Económicas emitido por la Hacienda Foral. En el caso de aquellas empresas cuyo epígrafe no venga recogido en el anexo I, deberá adjuntarse de manera complementaria a este certificado el balance y cuenta anual de resultados donde figure el volumen de ingresos por ventas minoristas.

c) Certificado actualizado de la Hacienda Foral que acredite que la empresa se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias.

d) Certificado actualizado de la Tesorería General de la Seguridad Social que acredite que la empresa se encuentra al corriente de sus obligaciones.

Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

e) Soldatapeko langileak izanez gero: Azken hileko TC2 agiria.

f) Hirugarrenen altari buruzko agiria, erakunde eskatzaileak eta dagokion banku-erakundeak sinatuta

g) Inbertsioak egiaztatzen dituzten fakturen edo aurrekontuen kopia. Agiri horiek behar bezala zehaztu beharko dira eta kontzeptuak argi definitu beharko dituzte, erraz identifikatzeko modukoak izateko. Kontzeptu kodifikatuen kasuan, horiei buruzko informazio gehigarria eskainiko da.

h) Hornitzaileei egindako ordainketen ziurtagiriak Ordaindu izana banku zor edo banku transferentziaren bitartez ziurtatuko da. Interneten bitartez lortutako ordainagiriak banku entitateak egiaztatu beharko ditu.

i) Helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik lortutako baliabideak, diru sarrerak, laguntzak edo diru-laguntzak lortzeari buruzko ardurapeko adierazpena.

Eskatzaileek Leioako Udalarekiko betebeharren ordainketak egunean dituztela ofizioz egiaztatuko da, baita nahitaezko baimenak izatea ere.

Interesdunak eskabidean jasotakoen artean edozein datu faltsutuz gero, prozeduratik kanpo geratu ahalko da eta, hala bada, jasotako diru-laguntza bueltatu beharko du.

**7. EMAKIDA PROZEDURA**

Diru-laguntzak lehia prozeduraren bitartez emango dira puntuazio altuena lortu duten eskabideei, jarraian zehaztuko diren balorazio irizpideak aplikatuz.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, instrukzio organoak, Behargintza Leioako teknikariek osatutakoak, onuradun izateko bete beharreko betekizunak betetzen direla egiaztatuko du, aurkeztutako dokumentazioa aztertuz.

Eskabideak ez badaude erabat beteta, edo oinarri hauetan eskatutako dokumentazio guztia ez bada erantsi, orduan elkarte edo pertsona eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun baliodunеko epean eskabidea zuzen dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta berariaz adieraziko da horrela jokatzen ez badu bere eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz ebazpena eman ondoren.

e) En el caso de tener personal asalariado: TC2 del último mes.

f) Documento de alta de terceros, firmado y sellado por la entidad solicitante y la entidad bancaria correspondiente.

g) Copia de las facturas o presupuestos de las inversiones realizadas. Estos documentos deberán ser detallados y describir perfectamente los conceptos, a fin de ser claramente identificados. En caso de conceptos codificados se aportará información anexa de éstos.

h) Documentos acreditativos de los pagos realizados a proveedores. La acreditación de pago se efectuará mediante transferencia bancaria o adeudo bancario. Los justificantes obtenidos a través de Internet deberán estar validados por la entidad bancaria.

i) Declaración responsable sobre la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedente de cualquier administración o ente, tanto público como privado.

Se comprobará de oficio que los/las solicitantes se encuentran al corriente del pago de sus obligaciones con el Ayuntamiento de Leioa y respecto a la posesión de los permisos preceptivos.

Si el/la interesado falseara alguno de los datos incluidos en la solicitud, podrá quedar excluido del procedimiento y, en cuyo caso, proceder al reintegro de la subvención concedida.

**7. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN.**

Las subvenciones se otorgarán por el procedimiento de concurrencia competitiva, a las solicitudes que obtengan mayor puntuación, atendiendo a los criterios de valoración que a continuación se detallan.
Concluido el plazo de presentación de solicitudes, el órgano instructor, compuesto por personal técnico de Behargintza Leioa verificará el cumplimiento de los requisitos necesarios para acceder a la condición de beneficiario/a, analizando la documentación presentada.

Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación requerida en las presentes bases, la persona o entidad interesada será requerida para que en el plazo de diez días hábiles, proceda a subsanar la falta o acompañe los documentos preceptivos, con expresa indicación de que, si así no lo hiciere, se tendrá por desistida su solicitud, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 68.1. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Instrukzio organoak emango duen txostenean eskatzaileen zerrenda, ebaluazio aurreko fasean egindako jarduketak eta horien emaitzak jasoko dira, baita baztertutako eskabideen zerrenda eta baztertzeko arrazoia ere.

El órgano instructor emitirá informe recogiendo la relación de solicitantes, las actuaciones llevadas a cabo en la fase de pre evaluación y el resultado de las mismas, así como la relación de solicitudes excluidas y la causa de exclusión.

Kide anitzeko erakundeak ebaluazio aurreko fasea gainditu duten eskabideak aztertuko ditu, instrukzio organoak emandako txostenaren arabera, eta espedienteak ebaluatuko ditu oinarri hauetan finkatutako irizpideekin bat etorriz. Kide anitzeko organoak ebaluazio txostena emango du, eta bertan eskatzaileen zerrenda ageriko da; zerrendak lortutako emaitza guztiaren araberako beheranzko ordena izango du, eta puntuazio partzialak ere ageriko dira, balorazio irizpideen arabera.

El órgano colegiado examinará las solicitudes que han superado la fase de pre evaluación según el informe emitido por el órgano instructor y valorará los expedientes con arreglo a los criterios fijados en las presentes bases. El órgano colegiado emitirá informe de evaluación en el que incluirá una relación de las personas solicitantes por orden decreciente de la puntuación total obtenida y con expresión de las puntuaciones parciales, a tenor de los criterios de valoración.

Kide anitzeko organoa kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: alkatea edo zinegotzi eskuordetua.
- Kideak: hiru izango dira, eta organo emaileak izendatuko ditu funtzionario, langile edo zinegotzien artetik.
- Idazkaria: hitz egin ahalko du baina ezingo du bozkatu, eta udaleko langile bat izango da.

El órgano colegiado estará compuesto por los siguientes miembros:

- Presidente: la Alcaldesa o Concejal/a en quien delegue.
- Vocales: serán 3 y se designarán por el órgano otorgante entre el funcionariado, personal laboral o concejalías.
- Secretario/a: con voz, pero sin voto, será una persona trabajadora del Ayuntamiento.

Instrukzio organoak, kide anitzeko erakundeak egindako ebaluazio txostena eta espedientea ikusita, behin betiko ebazpen proposamena aurkeztuko du organo emailearen aurrean.

El órgano instructor, a la vista del expediente y del informe de evaluación del órgano colegiado formulará propuesta de resolución definitiva al órgano concedente.

Publizitate, lehia eta objektibotasun irizpideak aintzat hartuta, oinarri hauetan arautako diru-laguntzak aurkeztutako proiektuaren balorazioaren arabera emango dira.

Atendiendo a criterios de publicidad, concurrencia y objetividad, las subvenciones reguladas en estas bases se concederán según la valoración del proyecto presentado.

Merkataritza Biziberritzeko Plan Bereziak finkatutako ildoei erreparatuz, udalerriko jardueran antzinatasun gehien, pertsona autonomoek sustatutako eta inolako langilerik ez daukaten saltokiak diruz laguntzea erraztuko da, baita kontzeptu hori dela medio beste diru-laguntza ildo batzuetan aurkezteko aukerarik ez daukatenak ere. Balorazio kontzeptu bakoitzaren araberako puntuazioa jarraian zehaztu da:

1. **Saltokiaren antzinatasuna** Kontzeptu honek jarduna denboran zehar mantendu duten negozioak lagundu nahi ditu.
   - 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna duen negozioa: 10 puntu.
   - 5 eta 10 urte arteko antzinatasuna duen negozioa: 5 puntu.
   - 5 urte baino gutxiagoko antzinatasuna duen negozioa: 0 puntu.

En atención a las líneas establecidas por el Plan Especial de Revitalización Comercial, se favorecerán las subvenciones a aquellos establecimientos que tengan una mayor antigüedad de la actividad en el municipio, promovidos por personas autónomas, sin personal a su cargo, y aquellas que carezcan de posibilidad de presentarse a otras líneas de subvención por este concepto. Se detalla a continuación la puntuación en función de cada concepto valorable:

1. **Antigüedad del Establecimiento**: Este concepto pretende favorecer a aquellos negocios que hayan mantenido la actividad de manera constante en el tiempo.
   - Vida del negocio superior a 10 años: 10 puntos
   - Vida del negocio entre 5 y 10 años: 5 puntos.
   - Vida del negocio inferior a 5 años: 0 puntos.

UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

2. **Saltokiaren tamaina**, entitatean lan egiten duten pertsona kopuruari dagokionez.
   - Negozioko titularra jardunean ari den pertsona bakarra bada: 5 puntu.
   - Entitateak 3 langile baino gutxiago baditu: 2 puntu.
   - Entitateak 3 langile edo gehiago baditu: 0 puntu.

3. **Beste diru-laguntza ildorik ez izatea:** Hala, garatzen duten jardun nagusia dela medio, kontzeptu hau dela-eta beste finantzaketa biderik ez daukaten saltokiak lagunduko dira (esaterako: ile apaindegiak, estetika zentroak, albaitaritza kontsultak, tindategiak, etab.). 15 puntu

4. **Negozioaren kokapena**: Atal honekin kalean bertan kokatutako saltokiak lagundu nahi dira, jarduna hartzen duen auzoa edozein dela ere. 5 puntu.

5. **Emakumeen ekintzailetza**: Leioako Udalaren Berdintasun Planaren esparruan, emakumeek zuzendutako negozioak aintzat hartuko dira. Puntu bat.

Zenbait proiektuk azken balorazio berdina lortuz gero, “1) Saltokiaren antzinatasuna” atalean balorazio altuena lortu duena aukeratuko da. Modu honetan berdinketa ebazten ez bada, “2) Saltokiaren tamaina” bigarren atalean puntuazio altuena lortu duena aukeratuko da, eta, hala jarraituko da, hurrenez hurren.

2.- Laguntzak ematea Alkatetzaren dekretu bidez ebatziko da, adjudikazio prozesua bukatu ondoren.

3.- Ebazpenak eman eta jakinarazteko gehienezko epea bi hilekoa izango da, eskabideak aurkezteko epemuga bukatzen denetik zenbatzen hasita.

4.- Prozedura ebatzi ondoren, interesdunek emakida ebazpenaren berariazko jakinarazpen pertsonalizatua jasoko dute.

**8. LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA**

Laguntzen onuradun diren entitateek memoria bat aurkeztu beharko dute Behargintza Leioan, diruz lagundutako jarduna bukatu eta hurrengo hilean; memoria horretan bezeroak erakartzeko egoera hobetzeko ikuspuntuko analisian egindako lanak xedatu beharko dira.

2. **Tamaño del Establecimiento** atendiendo al número de personas trabajando en la entidad.
   - La persona titular del negocio es la única dedicada a la actividad: 5 puntos.
   - Si la entidad alberga a menos de 3 personas trabajadoras: 2 puntos.
   - Si la entidad alberga a 3 o más personas trabajadoras: 0 puntos.
3. **Ausencia de otras líneas de subvención**: De esta forma, se beneficiará a aquellos establecimientos que dada su actividad principal carecen de otras vías de financiación por este concepto (Ejemplo: Peluquerías, Centros de Estética, Veterinarias, Tintorerías, etc.) 15 puntos.
4. **Localización del negocio**: Con este apartado, se pretende beneficiar a aquellos establecimientos ubicados a pie de calle, con independencia del barrio en el que se encuentre localizada la actividad. 5 puntos.
5. **Emprendimiento Femenino**: En el marco del Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Leioa, se valorarán aquellos negocios que estén dirigidos por mujeres. 1 punto.

En el caso, de que varios proyectos obtengan la misma valoración final se atenderá al que haya obtenido mayor valoración en el apartado “1) Antigüedad del Establecimiento”. Y si de esta manera no se resuelve el empate, al que haya obtenido mayor puntuación en el apartado 2) “Tamaño del Establecimiento”, actuándose así sucesivamente.

2.- La concesión de ayudas se resolverá a través de Decreto de Alcaldía una vez finalizado el proceso de adjudicación.

3.- El plazo máximo para resolver y notificar las resoluciones es de dos meses, a contar desde la fecha límite de presentación de solicitudes.

4.- Una vez resuelto el procedimiento, las personas interesadas recibirán notificación expresa e individualizada de la resolución de concesión.

**8. JUSTIFICACIÓN DE LA AYUDA Y ABONO DE LA SUBVENCIÓN.**

Las entidades beneficiarias de las ayudas, deberán presentar en Behargintza Leioa, durante el mes siguiente a la conclusión de la actuación subvencionada, una memoria en la que se detallen los trabajos realizados en el marco del análisis desde la perspectiva de mejora de situación para la captación de clientela.

Dokumentazioa Behargintza Leioak baliozkotu beharko du, eta edukiari esker negozioa berritzeak eragindako lehiakortasun hobekuntzaren jarraipena egin ahalko da.

Oro har, laguntza justifikatzeko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Azalpen memoria, III. Eranskinaren arabera.
b) Egindako jarduketaren dokumentazio grafikoa.

Eskabidea aurkeztu den unean diruz lagundu beharreko gastuaren dokumentazio justifikagarria aurkeztu ez bada, horrez gain beste agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

c) Egindako inbertsioen fakturen kopia. Agiri horiek behar bezala zehaztu beharko dira eta kontzeptuak argi definitu beharko dituzte, erraz identifikatzeko modukoak izateko. Kontzeptu kodifikatuen kasuan, horiei buruzko informazio gehigarria eskainiko da.

d) Hornitzaileei egindako ordainketen ziurtagiriak Ordaindu izana banku zor edo banku transferentziaren bitartez ziurtatuko da. Interneten bitartez lortutako ordainagiriak banku entitateak egiaztatu beharko ditu.

Ordainketa bakarra egingo da, zenbatekoaren %100ekoa, diruz lagundutako inbertsioa justifikatu ondoren.

**9. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK.**

Erakunde jasotzaileek bete beharreko baldintzak, oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1. artikuluan jaso dira, eta, zehazki, honako hauek dira:

a) Betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea, baita jarduera egiten dela eta diru-laguntza ematea edo izatea dakarren helburua betetzen dela ere.

b) Leioako Udalak egokitzat jotako egiaztatze jarduketak egitea, diruz lagundutako proiektuari lotuta beharrezkotzat jotako informazio edo dokumentazio oro aurkeztuz.

c) Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein egoera aldatu bada, Leioako Udalari berori jakinaraztea.

d) Hartutako funtsak itzultzea, xedatutakoak bete ezean, honako deialdi honek ezarritakoari jarraiki.

Esta documentación deberá ser validada por Behargintza Leioa y su contenido deberá permitir hacer un seguimiento de la mejora competitiva que supone la actualización del negocio.

Con carácter general, será necesaria la presentación de la siguiente documentación para la justificación de la ayuda:

a) Memoria explicativa según Anexo III.
b) Documentación gráfica de la actuación realizada.

En el caso de no haber presentado en el momento de la solicitud la documentación justificativa del gasto objeto de subvención, será necesaria además, la presentación de la siguiente documentación:

c) Copia de las facturas de las inversiones realizadas. Estos documentos deberán ser detallados y describir perfectamente los conceptos, a fin de ser claramente identificados. En caso de conceptos codificados se aportará información anexa de éstos.
d) Documentos acreditativos de los pagos realizados a proveedores. La acreditación de pago se efectuará mediante transferencia bancaria o adeudo bancario. Los justificantes obtenidos a través de Internet deberán estar validados por la entidad bancaria.

El abono se realizará en un único pago del 100% tras la justificación de la inversión subvencionable.

**9. OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES BENEFICIARIAS.**

Son obligaciones de las entidades beneficiarias las que, con carácter general, se establecen en el artículo 14.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en particular las siguientes:

a) Justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad, que determinen la concesión y disfrute de la ayuda.
b) Someterse a las actuaciones de comprobación que estime oportunas el Ayuntamiento de Leioa, aportando cuanta información o documentación relacionada con el proyecto subvencionado le sea requerida.
c) Comunicar al Ayuntamiento de Leioa la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
d) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos de incumplimiento conforme a lo que establece la presente convocatoria.

**10. DIRU-LAGUNTZA ALDATZEA**

Oinarri honetan aurreikusitako diru-laguntza emateko baldintzak aldatuz gero, emandako laguntza ere aldatu ahalko da, diru-laguntzaren onuradun izateko gutxieneko betekizunak zainduz. Baldintzak aldatzeak emandako diru-laguntza osorik edo partzialki itzultzea eragin badezake, orduan kasuan kasuko itzultze prozedura abiaraziko da.

**11. BESTE LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRIA IZATEA.**

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira diruz lagun daitezkeen gastu berberak finantzatzeko beste edozein laguntzarekin.

**12. IKUSKARITZA**

Leioako Udalak egokitzat jotzen dituen ikuskapen eta egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu diruz lagundutako jarduerei dagokienez. Horren haritik, udalak eskatutako informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute enpresa edo erakunde onuradunek.

**13. DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA.**

Leioako Udalak emandako diru-laguntzak Gardentasun Atarian, Behargintza Leioako webgunean eta iragarkien taulan argitaratuko ditu.

**14. LAGUNTZAK ITZULTZEA**

Jasotako zenbatekoak itzuli eta diru-laguntza ordaindu den unetik aurrera sortutako legezko interesak ordaindu beharko dira, erakunde onuradunek deialdi honetan, diru-laguntza esleitzeko ebazpenean eta aplikagarriak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak urratzen badituzte; gainera, horrek ez die kalterik egingo urratzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzei.

Diru-laguntza itzuli behar izateko inguruabarrak honako hauek dira:

- Diru-laguntza eskuratzea horretarako eskakizunak bete gabe.

- Diru-laguntzaren xedea ez betetzea.

- Emakida dela-eta, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.

- Kontrol-jarduerei uko egitea edo horiek eragoztea.

**10. MODIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención prevista en las presentes bases podrá dar lugar a la modificación de la ayuda concedida, salvaguardando los requisitos mínimos establecidos para ser persona beneficiaria de las subvenciones. En el supuesto de que de la alteración de las condiciones pudiera derivarse la devolución de la totalidad o parte de la ayuda concedida, se iniciará el correspondiente procedimiento de reintegro.

**11. INCOMPATIBILIDAD CON OTRAS AYUDAS Y SUBVENCIONES.**

Las ayudas previstas en la presente convocatoria son incompatibles con cualquier otra ayuda por los mismos gastos subvencionados.

**12. INSPECCIÓN.**

El Ayuntamiento de Leioa podrá realizar las inspecciones y comprobaciones que estime oportunas en relación a las acciones subvencionadas, debiendo aportar las empresas o entidades beneficiarias cuanta información complementaria se les solicite.

**13. PUBLICIDAD DE LAS SUBVENCIONES.**

El Ayuntamiento de Leioa procederá a la publicación de las subvenciones concedidas en su Portal de Transparencia, página web de Behargintza Leioa y en el tablón de anuncios.

**14. REINTEGRO DE LAS AYUDAS.**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, así como la exigencia de los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, cuando las entidades beneficiarias de las mismas incumpliesen las condiciones establecidas en la presente convocatoria, en la resolución de concesión y en las demás normas que resulten de aplicación; todo ello sin perjuicio de las acciones que procedan como consecuencia del incumplimiento.

Se considerarán supuestos de reintegro:

- Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

- Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.

- Incumplimiento de las condiciones impuestas a los/as beneficiarios/as con motivo de la concesión.

- La negativa u obstrucción a las actuaciones de control.

**15. ORDEZKO ERREGIMENA**

Deialdi honetan arautzen ez den guztiari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen araudia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Leioako Udaleko Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra, 2013ko otsailaren 11ko BAOn argitaratutakoa, aplikatuko dira.

**16. DATU PERTSONALEN BABESA.**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetzeko xedez, Leioako Udalak jakitera ematen du eskatzaileen datu pertsonalak modu automatizatuan tratatu ahal izango direla eta Leioako Udalaren Informazio Sisteman sar daitezkeela. Datu horiek soilik udal kudeaketan erabili ahalko dira, eta beste Administrazio Publiko batzuei laga edo jakinarazi ahalko zaizkie. Interesdunek datuak ikusi, kendu, zuzendu eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Udalaren informazio- eta erregistro-zerbitzuaren bitartez.

**17. BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak 2017. urterako onartutako Leioako Udaleko aurrekontutik "ENPLEGUA, TOKI GARAPENA, TOKIKO MERKARITZA SUSTATZEA" partidaren kargupean finantzatuko dira, guztira 12.000,00 euroko zenbatekoan.

**15. RÉGIMEN SUPLETORIO.**

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas así como la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa publicada en el BOB el 11 de febrero de 2013

**16. PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.**

El Ayuntamiento de Leioa, en cumplimento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales de las entidades solicitantes podrán ser objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Leioa. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través del servicio de información y registro del Ayuntamiento.

**17. RECURSOS ECONÓMICOS.**

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria se financiarán con cargo a la partida del presupuesto del Ayuntamiento de Leioa aprobado para el 2017, "EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL; FOMENTO COMERCIO LOCAL" por un importe total de 12.000,00 euros.

**I. ERANSKINA: DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN (JEZ) EPIGRAFEEN ZERRENDA**
**-LEIOA BERRIZTEN-**

| Código | Nombre |
|---|---|
| 1.3832 | BIZIKLETA, TRIZIKLO ETA MONOZIKLOAK |
| 1.3835 | BIZIKLETA ETA MOTOZIKLETETARAKO ALDAGAILU, ZATI ETA PIEZA BANANDUAK |
| 1.4521 | ARTISAUTZAKO ETA NEURRIKO ZAPATAK |
| 1.453 | JANZKI MOTA GUZTI ETA JANTZIEN OSAGARRIEN SALDOKAKO GERTUKETA |
| 1.454 | JANZKIEN ETA BERAUEN OSAGARRIAK NEURRIRA GERTUTZEA |
| 1.4551 | ETXERAKO EHUNGAI ETA TAPIZEN GERTUKETA |
| 1.4559 | BESTELAKO ATALETAN BILDU EZ DIREN EHUNGAIZKO GAUZEN GERTUKETA |
| 1.4561 | LARRUKIGINTZA NATURALA |
| 1.4562 | LARRUKINGINTZA ARTIFIZIALA |
| 1.4911 | BITXIGINTZA |
| 1.4912 | BISUTEGINTZA |
| 1.4933 | ARGAZKIGINTZAKO KOPIA ETA ZABALKUNTZAK |
| 1.641 | FRUITA, BARAZKI, ORTUARI ETA TUBERKULUEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.642 | HARAGI ETA HONDAKINEN; HARAGIGAI ETA HARAGIKI GERTUTUEN, ARRAULTZE, HEGAZTI, ABELETXEKO UNTXI ETA EHIZIEN; ETA BERAIEN EKOIZKIN ERATORRIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |

| | |
|---|---|
| 1.643 | ARRAINEN ETA ARRANTZA ETA URZANTZAKO BESTE EKOIZKINEN ETA BARRASKILOEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.644 | OGI, GOZOKI, KONFITE ETA ANTZEKOEN, BAITA ESNE ETA ESNEKIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.645 | MOTA GUZTIETAKO ARDO ETA EDARIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.646 | TABAKO-BARIETATEEN ETA ERRETZAILEENTZAKO GAIEN TXIKIZKAKO |
| 1.647 | OROHAR, JANGAIEN ETA EDARIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.651 | EHUNGINTZAGAI, JANTZIGINTZAGAI, ZAPATA, LARRUAZAL ETA LARRUGINTZAGAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.652 | BOTIKEN ETA FARMAZIAKO EKOIZKINEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA; DROGAGINTZA ETA GARBIKETAKO GAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA; MOTA GUZTIETAKO LURRIN ETA KOSMETIKOENA; ETA, OROHAR, KIMIKAKO EKOIZKINENA; BELARDENDETAKO BELAR ETA LANDAREEN TXIKIZKAKO |
| 1.653 | ETXEKO EKIPAMENDU ETA ERAIKINTZARAKO GAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.654 | LURGAINEKO IBILGAILUEN, AIREUNTZI ETA UNTZIEN ETA MAKINERIAREN, ALDAGAILU ETA ORDEZKAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.655 | ERREGAI, KARBURAGAI ETA LABAINGAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.656 | ALTZARI, JANZKI, ETXEKO TRESNA ARRUNT ETA ANTZEKO ONDASUN ERABILIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA |
| 1.657 | MUSIKATRESNEN, ORO HAR, ETA HORIEN ALDAGAILUEN TXIKIZKAKO |
| 1.659 | TXIKIZKAKO BESTELAKO MERKATARITZA |
| 1.671 | JATETXEETAKO ZERBITZUAK |
| 1.672 | KAFETEGIETAKOAK |
| 1.673 | JATEN EMATEN DUTEN ETA EMATEN EZ DUTEN KAFETEGI ETA TABERNETAKOAK |
| 1.676 | TXOKOLATEGI, IZOTZDENDA ETA ORTXATADENDETAKO ZERBITZUAK |
| 1.6779 | JATETXEGINTZARI BEREZKOAK ZAIZKION BESTE ELIKADURA ZERBITZU BATZU |
| 1.755 | BIDAI AGENTZIAK |
| 1.971 | IKUZTEGIAK, TINDATEGIAK ETA ANTZEKO ZERBITZUAK |
| 1.972 | ILEAPAINKETA ARETOAK ETA EDERGINTZA INSTITUTUAK |
| 1.973 | ARGAZKIGINTZA ZERBITZUAK, ARGAZKI MAKINA AUTOMATIKOAK ETA FOTOKOPIA ZERBITZUAK |
| 2.013 | ALBAITARIAK |

- Jasotako epigrafeen zerrendaz gain, osagarri gisa, beste jarduera batzuk ere aintzat hartu ahalko dira, txikizkako merkataritza salmentaren bolumenaren edo saltokia kalean bertan kokatuta egotearen arabera.

**ANEXO I. LISTADO DE EPÍGRAFES DE IMPUESTO DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS (IAE) OBJETO DE SUBVENCIÓN**
**-LEIOA BERRIZTEN-**

| Código | Nombre |
|---|---|
| 1.3832 | BICICLETAS, TRICICLOS Y MONOCICLOS |
| 1.3835 | ACCESORIOS PARA MOTOS Y BICICLETAS |
| 1.4521 | CALZADO ARTESANIA Y MEDIDA |
| 1.453 | CONFECC. TODA CLASE PRENDAS VESTIR |
| 1.454 | CONFECC. MEDIDA PRENDAS VESTIR |

| | |
|---|---|
| 1.4551 | CONFECC. ART. TEXTILES HOGAR/TAPICERIA |
| 1.4559 | CONFECC. OTROS ART. TEXTILES NCOP |
| 1.4561 | PELETERIA NATURAL |
| 1.4562 | PELETERIA ARTIFICIAL |
| 1.4911 | JOYERIA |
| 1.4912 | BISUTERIA |
| 1.4933 | COPIAS FOTOGRAFICAS Y AMPLIACIONES |
| 1.641 | COM.MEN.FRUTAS,VERDURAS |
| 1.642 | COM.MEN.CARNES Y DERIVADOS |
| 1.643 | COM.MEM. PESCADOS Y DERIVADOS |
| 1.644 | COM.MEN.PAN,PASTELES,CONFITERIA,LACTEOS |
| 1.645 | COM.MEN.VINOS Y BEBIDAS |
| 1.646 | COM.MEN.TABACOS Y ARTICULOS DE FUMAR |
| 1.647 | COM.MEN.PTOS.ALIMENTICIOS Y BEBIDAS |
| 1.651 | COM.MEN.PTOS.TEXTILES, CONFECCION, CALZADO, PIELES |
| 1.652 | FARMACIA, DROGUERIA, PERFUMERIA, HERBORISTERIA |
| 1.653 | COM.MEN. EQUIPAMIENTO DEL HOGAR Y CONSTRUCCIÓN |
| 1.654 | COM.MEN.VEHICULOS Y ACCESORIOS |
| 1.655 | COM.MEN.COMBUSTIBLES Y CARBURANTES |
| 1.656 | COM. MEN. DE BIENES USADOS |
| 1.657 | COM.MEN. INSTRUMENTOS MUSICA Y ACCESORIO |
| 1.659 | OTRO COMERCIO AL POR MENOR |
| 1671 | RESTAURANTES |
| 1.672 | CAFETERIAS |
| 1.673 | BARES |
| 1.676 | CHOCOLATERIAS,HELADERIAS Y HORCHATERIAS |
| 1.6779 | OTROS SERV. ALIMENTACION - RESTAURACION |
| 1.755 | AGENCIAS DE VIAJES |
| 1.971 | LAVANDERIAS, TINTORERIAS Y SERVICIOS SIMILARES |
| 1.972 | SALONES DE PELUQUERIA E INSTITUTOS DE BELLEZA |
| 1.973 | SERVICIOS FOTOGRAFICOS Y FOTOCOPIAS. |
| 2.013 | VETERINARIOS |

- De manera complementaria al listado de epígrafes relacionado, se podrán considerar otras actividades en función de su volumen de venta comercial minorista y la ubicación del establecimiento a pie de calle.